

## Bizikidetza positiboa gizarte osoaren ardura da

Bizikidetzarako aholkularitza  
Hezkuntza Departamentua

**900 841 551**

convive@cfnavarra.es

Familia, ikasle eta irakasleentzako,  
arreta zuzeneko zerbitzua

[www.pnte.cfnavarra.es/convive](http://www.pnte.cfnavarra.es/convive)

### Bizikidetza positiboa

lortuko dugu harreman pertsonal atseginak eta adeitsuak izan nahi baditugu eta hartarako ahalegina egiten badugu. Eskolan bizikidetzarako giro ona izateko, beharrezkoa da pertsonak arau batzuk errespetatzerakoan ados jartzea, irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapen egokia bermatuko duten arauak, alegia.

### Bizikidetzaren aldeko apustua

Ikastetxe batera zeinahi jatorri, kultura, interes, adin eta generotako jendea etorri ohi da eta horrek haserrealdiak eta tentsioak eragiten ditu, maiz. Hori dela-eta, garrantzitsua da elkarrekin bizitzen eta gatazkak konpontzen ikastea, inolako indarkeriarik erabili gabe; elkarren artean hitz egin behar da eta gainerako pertsonak ulertzen eta errespetatzen ahalegindu. Balio demokratiko horietatik abiatu, familiak eta eskolak batera ahalegindu behar dute horretan.

### IRAKASLEAK

1. Niri ere badagokit bizikidetza. Gure ikastetxeko giroa hobetzen ahalegintzen naiz. Bizikidetzarako taldearekin lankidetzan aritzen naiz eta gure Bizikidetza Plana ezartzearen ondoriozko neurriak diseinatzen eta ezartzen jarduten dut.
2. Gure hezkuntza elkartearen bizikidetza kudeatzen ahalegintzen gara, gatazkei aurre egiteko praktika onak sustatzen dituen eredu integratu batetik abiatu.
3. Gure ikasleekin hezkuntza emozionala, gatazken konpontzea eta gizarte trebetasunak lantzen ditut.
4. Ahalegintzen naiz estrategietan, tekniketan eta trebetasunetan, gai didaktikoen gainekoetan zein gatazkak konpontzeari buruzkoetan, neure burua prestatzen.
5. Harremanak zaintzen ditut, gure lankideekin, ikasleekin eta euren familiarekin harremanetan jartzen naiz eta haiek esandakoa entzuten dut.
6. Ikasgelako egoera gatazkatsuen gainean modu pro-aktiboan hausnartzen dut.
7. Uste dut irakasleek agintea behar dutela. Disziplina positiboa bultzatzen dut eta gure estiloak disrupzioari aurrea hartzen dio. Gure klaseetan lankidetzan egiten da lan.
8. Tutoretza saioetan gizarte trebetasunak lantzen ditut eta gure ikasle guztiekin elkarriketak izaten ditut.
9. Gure ikastetxeko hezkuntza proiektuko balioak partekatzen eta sustatzen ditut.
10. Uste dut gure ikasleak euren egintzen erantzule direla. Horregatik, euren autonomia maila guztietan sustatzen dut eta horrekin batera euren erabakien ondorioez ere ohartarazten diet.

### BIZIKIDETZA POSITIBOA gizarte osoaren ardura da

### FAMILIAK

1. Gure seme-alaben ikastetxeko parte naizela uste dut, haien printzipioak eta balioak partekatzen ditut eta gure seme-alabak hezten ditut errespetu eta elkarriketa giroan, eta gatazkak modu positiboan lantzen ditut, erantzukizunez, solidaritatez, justizian, ahaleginean...
2. Ikastetxeko egituretan eta ildo demokratikoetan hartzen dut parte.
3. Gure ikastetxeko bizikidetza taldearekin lankidetzan aritzen naiz eta Bizikidetza Plana ezartzearen ondoriozko neurriak aplikatzen ahalegintzen naiz.
4. Irakasleekiko harremana ohikoa da eta, laguntzatik eta lankidetzatik abiatu, pertsonen arteko harremanak zaintzen ditut. Iruditzen zait geure lana talde-lana dela.
5. Gure seme-alabek esan beharrezkoa entzuten dut eta haiekin mintzatzen naiz, bereziki gatazkei aurrea hartzeari dagokionez.
6. Inguruko egoera gatazkatsuen gainean modu pro-aktiboan hausnartzen dut.
7. Gure heziketa hobetzen ahalegintzen naiz geure seme-alabak ahalik eta ongien hezteko.
8. Etxean arau eta muga argi eta sendoak ditugu. Arduratzen naiz arau horien jarraipenaz eta gure seme-alaben eskolako bilakaeraz eta bilakaera pertsonalaz.
9. Ahalegintzen naiz familiaretan harremanak positiboak izan daitezen eta guztien arteko maitasuna eta ardura izan dezaten oinarri.
10. Uste dut gure ikasleak euren egintzen erantzule direla. Horregatik, maila guztietan euren autonomia sustatzen dut eta horrekin batera euren erabakien ondorioez ere ohartarazten diet.

### NESKA - MUTIKOAK

1. Hau gure ikastetxea da, hemen ikasi eta pertsona on modura hazi nahi dut. Ahalegintzen naiz guztien arteko harremanak hobetzen. Lagun onak egin nahi ditut.
2. Saiatzen naiz harreman onak izaten, bizikidetza taldearekin lankidetzan aritzen naiz eta gure ikaskideen arteko gatazkak konpontzen laguntzen dut.
3. Gure gatazkak konpontzeko indarkeria erabiltzeari uko egiten diot eta gatazka haiek ongi buka daitezen ahalegintzen naiz.
4. Esan beharrezkoa argi esaten ditut, baita geure ikaskideek esan beharrezkoa entzun ere, bereziki egoera gaiztoan daudenak.
5. Geure ikaskideak laguntzen ditut eta laguntza eskatzen diet, hala behar dudanean.
6. Gure egintza eta erabakien ondorioak onartzen ditut, pertsona arduratsua naizelako.
7. Zuzena naiz eta geure ingurukoak errespetuz hartzen ditut. Ni neu ere errespetatua izatea eskatzen dut.
8. Nire askatasuna bukatzen da gainerakoena hasten den unean.
9. Baditut eskubideak, baita betebeharrak ere. Geure eskubideak defendatzen eta geure betebeharrak betetzen ditut.
10. Ahalegintzen naiz, baditut ekimenak eta geure arazoaren ardura hartzen dut (poztasunez saiatzen naiz konpontzen). Ahaleginak eta bi egiten ditut "HEMEN BAI GIRO" leloa betetzeko.

hemen  
**Bai**  
**GIRO**

Bizikidetza positiboa  
eta ikastetxea




Irakaslea




Javi



Txus



Mitxel



Leire



Guraso bat